

* GAUZAK IKUSTEZIN BIHURTZEKO ETA ZUK BAKARRIK
IKUSTEKO UKENDUA *

-Osagaiak:

- Hildako baten odol tanta(likido egoeran).
- Minotauro baten adarra.
- Lami baten orrazia.
- Tartaloren 2.begia.
- Basajaun baten oineko 11 azazkal.
- Amuarrain baten ilea.

-Nola prestatu ukendua:

2005eko otsailaren 29an urrezko pitxer bat hartu eta osagaiak alfabetikoki bota ontzian. Irabiatu pitxerrak ke urdina atera arte eta ateratzen duenean esan hitz hauek:

*Nire pentsamenduak urtu,
ukendua hartu,
eta gauzak ikustezin bihurtu.*

Hau esan eta gero ukendua edan dezakezu.

-Ukendua hartzearen ondorioak:

Ukendua hartzen baduzu, %99 kasuetan hiltzen zara, baina funtzionatzen badu, sukarra izango duzu hilabete batez; ondoren arazorik gabe erabili egin dezakezu.

-Ukendua nola erabili:

Ukendua hartu eta gero, objektu bat ikustezin bihurtzeko, xuxurlatu objektuari:

*Ez baduzu nahi jendeak ikustea,
Hobe ikustezin bihurtzea.*

Eta berriro ikusteko:

*Nahi baduzu jendeak ikustea,
Hobe konjurua kentzea.*